



2018-09-21 / 578. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Leitzaran bailaran barrena ehunka lasterkari

Naturbidean barrena egiten den probak lasterketaz beteriko egitarauan tokia egitea lortu du. Aiurri.eus gunean dozenaka argazki dago ikusgai. / 15



Carmona, Lopez eta Baños urnietarrak Goikoplazako helmugan. AIURRI



'Ez utzi dantzatzeari', Sanmielen atariko ederra

Egape dantza taldeko helduek ekainean eskainitako ikuskizuna errepikatuko dute. / Gehigarria

Joxean Huiziren etxekoan eskertza-oharra Euskaldunako futbol taldeko familia osoari / 4

'Kale giroan' dantza eta antzerki zikloa Andoainen, asteburu honetan eta hurrengoan / 6

Sanmielak Urnietan: Gehigarria berezia
+  **Jaien atariko, egitaraua, albisteak, erreportajea...**

"Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala Liburuaren aurkezpen ekitaldia

Irailak 25, asteartea

19:00. Urnietako Lekaio kultur etxea

Hizlariak: Pello Esnal, Joxemari Iriondo, Xabier Andonegi

Bertsolariak: Andoni Mujika "Anatx", Ion Beloki





Abuztuaren 16an Besabin bildu zituen Aiurri astekariak lau urnietarrak. AIURRI

Urnietako pasadizo beltzenetakoa

40 urtetik gorako urnietarrek nekez ahaztuko dute 1993ko irailean herrian gertatu zena. ETak bahituta zeukan Julio Iglesias Zamora Adarramendin gordeta zeukatelakoan, Guardia Zibilak Urnieta hartu zuen hiru astez

Andoni Urbistondo URNIETA

Dozenaka poliziek inguratuta eduki zuten herria gau eta egun, eta 3.000 biztanleko gune lasaia komunikabideen erakusleio bihurtu. Batez ere operazio hark zer ekarri zuen ikusita: hogeitaka atxilotu, ia denak tortura latzak jasandakoak; lau urnietar kartzelara, eta bat, errugabea, Urnietara hilkutxa batean ekarri zutena: Gurutze Iantzi. Kartzelan egon zirenetako hiru lagun, eta atxilotu ondoren aske utzi zuten beste herritar bat bildu ditu Aiurri astekariak Besabin. 1993ko irailean Guardia Zibilaren kuartel inprobisatua bilakatu zen tokia, hain zuzen ere.

Gonbidapenari baiezkoa emateko zalantzak izan dituzte: “Eta beste norbait esaten badiok, zer moduz?”. Oroitzapen tristeak gogora ekartzea ez da erraza. Egunerokoan oharkabean gertatzen dira memoriako txoko batean, baina haiei buruz galdetzen hasita... komeriak. Xabier Lasartek horrela hasi du solasaldia (48 urte): “Gaur halako tope bat izan dut sabelean, eta pentsatzen dut gai horri buruz hitz egitera natorrelako dela. Ahaztu ez naiz egin, sekula ez. Eguneroko gogoratzen naiz egun haietaz. Gestionatu egiten duzu”. Karmele Urbistondok, txanda (50 urte): “Ikasi dut horrekin bizitzen,

baina azken 3-4 egunetan gaizki egin dut lo, hortzak estutzen, hemengo mina... ez da inoiz ahazten, eta modu batean edo bestean azaltzen da”.

“Ez da inoiz desagertzen”, bota du Ramon Urdangarinek (50 urte). Euker Garmendiak (47 urte), aldiz, ez du halakorik sentitu: “Ez nago urduri. Ez nintzen kartzelaratu izan, eta atxiloketa egunei buruz hitz egiteko talde bat elkartu ginen aspaldi (Sarea Taldea, liburua ere argitaratu zuten). Bakoitzak bere barruko gauzak atera zituen, eta hitz egin nahi ez genuenaz mintzatu ginen. Barruak askatu nituen bere garaian”. Laurak

izan ziren atxilotuak. Hiru kartzelan geratu ziren: Lasarte, Urbistondo eta Urdangarin, lau urte baino gehiago. Euker libre utzi zuten. “Fisikoki”, zehazten du. Psikologikoki denbora eman zuen gertatutakoa ahaztu ezinik, antsietateak jota. Ziegan pasatukoak ahaztu ezinik.

Bost egun. 144 ordu bukaezin. Tortura hitza entzun eta kolpatu gabe, kolpea hartu duenaren aurpegia jarri dute denek. Labur hitz egin dute, sumatzen da ez direla eroso sentitzen. Esandako apurrekin, baina, nahikoa eta gehiegi Madrilgo ziegatan pasa zituztenak publiko egiteko. Laburpena, esaldi batean. Lasarterena: “Nik kartzela urteak ordainduko nituzke, musu truk, egun horietako bakar bategatik. Bost urte ere bai, igual”. Infernu bat omen: “Bideratzen zaituzte beraiek nahi duten egoerara. Txotxongilo bat zara euren eskuetan, eta beraiek nahi dutena esaten duzu azkenerako”.

Urdangarinek Urnietatik Antiguako kuartelerainoko bidea du iltzatuta: “Dozena bat Guardia Zibil nituen inguruan, kolpeak eman eta eman. Medikuek galdetu zidan, ea zer moduz nengoen... Esan nion, kolpez josi nindutela, eta bueltan beste ratio bat jaso nuen!”. Garmendiak injekzio bat sartu ziotela du gogoan, “oraindik inon agertzen ez dena. Zer sartu zidaten ere ez dakit! Urnietara etorri ziren Guardia Zibilek, hemen lan egiten zutenek, ez zuten neurririk, berdin zitzaien dena”. Urbistondo ere ondo gogoratzen da, Tres Cantoseko komisaldegitik Entzutegi Nazionalera bidean, nola esan zioten: ‘*Bueno Karmele, ya sabes lo que le tienes que decir al juez, que si no ya sabes que te esperamos aqui de vuelta*’. “Psikikoki hondoratu egiten zaituzte, profesionalak dira”. Obsesio berezia omen dute emakumeekin, “sexu kontuarekin: *‘que si a cuantos te has follado, a la noche vendré y ya verás que bien lo vamos a pasar...’*”.

“URNIETARA ETORRI ZIREN GUARDIA ZIBILEK EZ ZUTEN NEURRIRIK, BERDIN ZITZAIEN DENA”

Aitortzarik ez

Pasatakoen inguruan erakunde, politikari, agintariren baten arreta jaso ote duten galdetu diegu. Erantzun biribila: Ez. Iaz, Jaurlaritzak torturak jasan zituztenen txostena osatu zuen, Pako Etxeberria forentseak gidatutako taldeak, eta horrek halako arnasa eman diela onartzen du Lasartek: “Bai, pauso garrantzitsua da. Ni neu Etxeberriarekin egon naiz, eta gure kasuaz lasai, parean aditu bat dagoela hitz egin ahal izatea oso garrantzitsua da”. Barruak askatu ahal izatea, baina, gauza bat da, eta aitortza bestea. Lasarte oso kritikoa mintzatzen da: “Gu ez gaitu inork atenditu, arreta eskaini. Guk kartzelarekin ordaindu genuen gure zorra, eta orain, gure aldetik, borondate argia dago sufrimendu guztiei aurre egiteko. Sendabide bat behar du komunitateak gure kasuari dagokionez. Eta ez naiz ari torturatzailea atxilotu eta zigorra jartzeaz. Ari naiz guk atentzio bat merezi dugula. Gure atxiloketa eta ziegako bost egunetan gertatu zena parametro antidemokratikoetan oinarritu zen. Ez dakit horretaz jabetzen garen... Hori gure kasuan, pentsa Gurutzeren familia...”.

Herriko pertsona batzuekin bizi izan zuena ere ekarri du solasaldira Lasartek: “Niri ezker abertzale ingurukoa izan ez eta laguntza edo babesa eman didan pertsona bakarra Luis Goikoetxea izan da: elektrizista. Galdetu egin zidan ea torturatu ninduten, eta baietz esan nion. Kartzelara ere bisitan etorri izan zen. Egia da Luisekin harreman pertsonala baneukala lehenagotik. Inaki apaiza ere aipatu nahi nuke. Inakik zenbat lan egin zuen gurekin, ikaragarria, gauza asko ateratzeko. Setienekin, hark Arzalluzekin... eta egindako lanaren truke ze mespretxu keinu jaso zituen. Bestelakoan? Ezer ez! Ez alkaterik, zinegotzirik, politikaririk... *‘Zer moduz hago?’* soil bat... Jose Manuel Martiarena agurtzen dut, berak ni ere, biok badakigu zer dagoen... Eta agurtzen gara! Diodana da gertatu zena ez dudala inoiz ahaztuko, eta jende guztia atenditu beharra dagoela ere bai... politikak eta alderdi politiko bakoitzak berekin dakartzen edo dituen presioen gainetik”.

Garmendia ere oso kritikoa da: “Torturak jasan ditugun pertso-



Xabier Lasarte. AIURRI



Karmele Urbistondo. AIURRI



Ramon Urdangarin. AIURRI



Eukene Garmendia. AIURRI

nekiko arreta edo laguntza falta itzela nabaritu izan dut nik ere. Tortura da onartzen den gauza bat, baina onartu gabe. Jendeak dio: *'bueno, egin dira, baina ez diotena bezain beste'*. Pasadizo bat badu, gogoan, atxiloketa ostekoa. "Londresera joan ginen, gure lekukotza nazioartean zabaltzeko. Ni hondoratu egin nintzen, eta han Tele 5 telebistako kazetari bat zegoen, eta hala esan zuen: *'No conozco a este chico, y no se si será actor, pero si lo es, lo ha hecho muy bien. Yo me he creído todo lo que ha dicho, desde la primera hasta la última palabra. Luego mi medio de comunicación contará lo que le parezca oportuno, pero a mi su relato me ha parecido creíble'*."

Eta eskaera bat, Urbistondoren partetik: "Tortura existitu dela mundu guztiak dauka asumituta. Gauza bat da errealitate hori ezkutatzea. Nahi ez duenak ez du sinetsiko, baina existitu dela... Nik jasandako torturen inguruan ez dut gezurrik esan, eta dudu egiten dut torturak salatu dituen norbaitek hala egin ote duenik. Gurearen moduko trantzean egon denak, hiru, bost egun ziega batean, ezin du guk egindakoaren errelatorik asmatu, inbentatu. Ezinezkoa da. Gertatu egin zen, eta horrek atentzioa, ardura bat eskatzen du. Izan politikoa, komunitatearena, familiarrena..."

Irailak 24, astelehena
Urteurrenako ekitaldia
Dantza, lore eskaintza eta Egiari Zor fundazioko Ane Muguruzaren parte hartzea.

Euskal Herrian bizikidetzeta oso bat gauzatuko bada, torturatuak izan ginenok ere aintzat hartu beharko gaituzte. Erritmo eta epetan ez naiz sartzen, baina aintzat hartu beharko gaituzte".

Zergatik Urnieta?

1993an Urnietan gazte mugimendu handia zegoela gogoratzen du Urdangarinek, "baina operazio hark erabat desegin zuen militantzia guztia. Kartzelatik atera nintzenez ere, herriko militantzia hilda ikusi nuen, eta ulertzekoa zen, gurekin egin zutena eginda. Izua zabaldu zuten, eta jendea beldurtuta zegoen". "Eta dago", dio Urbistondok: "Oraindik bada saltsetan ez duela sartu nahi esaten dizun jendea". Mende laurdena pasata, Urnietan gertatu zena esperimendu bat bezala ikusten du. "Ondorio latzak izan zituen esperimenduak eta inork erantzukizunik hartu gabe!"

1993ko testuinguru politikoa hartu du ahotan Lasartek: oso agerikoa omen zen ETA eta Espainiako Gobernuaren artean lehia handia zegoela. "Aurreko urtean Bidarteko kolpea eman eta ETA bukatu zutela saldu zuten... baina ez zen hala izan, lehia militarra zegoen bi aldean artean, eta 1993an egurra etorri zen. Urnietako segadan denarako baimena zuten Guardia Zibilek. Barra libre, esaten den bezala".

Garmendiak gertutik jarraitu zuen sarekada hark Urnietan izan zuen jarraipena: "Besteak beste txosnen gaiarekin, debekuak eta beste Udaletxean. Herri txiki bat aukeratu zuten, non ezkerreko mugimendua indarra hartzen ari zen, eta txikitu egin zuten

dena. Mediatikoki ere jarraipen itzela eduki zuen, gezurra han eta hemen".

Zer esan, belaunaldi berriek?

Urnietan hazi egin da ikaragarri azken mende laurdenean. Bere populazioa bikoiztu du, eta gazte askok ez dute arrastorik 25 urte atzera herrian gertatu zenaz. Lasarte, Urdangarin eta Garmendiaren seme-alabek bai. Uxue Urdangarin aita atxilotu zuten egun berean jaio zen, eta bere aitak dioenez, etxean, momentua bilatu dutenean, hitz egin izan dute uita hartaz: "Badakite zer gertatu zen". "Bere kabuz ere informazioa bilatzen badakite egungo gazteek. Nire seme zaharrenak begiratu duela badakit", dio Eukenek. "Nahikoa da Google-en nire izena jartzea".

Laurek 1993 urrun hartako irailan bizi izan zuten pasarte hark noizbait Euskal Herriaren memorian tokirik izango ote duten galdetuta, honatx lauoktearen hausnarketa: "25 urte barru hemen egongo garen ere ez dakigu...". "Nik tortura kasu epaiketa normal bat ikusiko nuke, Argentinan bezala", dio Lasartek. "Paperak desklassifikatuko dira noizbait, ez? Ez dakit Uxuek, edo Uxueren alabaren alabak ezagutuko duen benetako egia, baina etorri beharko luke. Gu baino lehenago askoz jende gehiago

**"NAHI EZ DUENAK
EZ DU SINETSIKO,
BAINA DENOK
DAKIGU TORTURA
EXISTITU DELA"**

Gurutze lantziren heriotza

Torturaz gain, egoera jakin batek baldintzatu zuen erabat urnietarren atxiloaldia: Gurutze lantziren heriotza. "Gauza gogor bat esatera noa. Gurutze hil zenean guri bakean utzi ziguten. Nik Gurutze ohatilan pasatzen ikusi nuen, eta une horretan jarrera aldatu zuen Guardia Zibilak. Fisikoki diot. Psikologikoki Gurutzeren heriotza erabili zuten, beldurra sartzeko: *'Begira zer gertatu zaion zure lagunari, ea ba ez zaizun zuri berdina gertatuko'*, esan du Garmendiak. "Ez dakit ziegan generaman laugarren edo bosgarren eguna izan zen. Sekulako egurra jasotzen ari ginen, eta bat-batean lasaitu egin ziren", Urdangarinek. Urbistondok Entzutegi Nazionalen Carmen Galdeano abokatuarekin topatu zenean gertatutakoa oroitzen du ondo: "Esan zidan berri txar bat zeukala, eta esan nion, *ez dut berriro ziegara bueltatu nahi*, hori baino berri txarragorik ez zegoela, eta berdin zitzaidala kartzelara joatea. Zoritxarrez, bazegoen berri txarragorik... Galdeketa bukatu egin ziren Gurutzerena jakin zenean".

Eta kartzela. Oasi bat. Lasaitasunerako pasaporte: "Niri Carabanchelera nindoala esan zidatenean nire buruari esan nion: *'bukatu da, salbu haiz'*". Natural dio Lasartek, berarentzat kartzela urteak ez zirela txarrak izan: "Ez dut oroitzapen txarrak, benetan". Urbistondo oso babestua sentitu zen, kartzelara iritsi zenean: "Zisko eginda iristen zara, eta han daudenek badakite zer egin, lehen egunak samurragoak izan daitezten. Nik laguntza handia eduki nuen, kartzela, orokorrean, esperientzia aberasgarria izan zen".

torturatu zuten, eta hor jarraitzen dute, batere berririk gabe. Nik, eta ni bezala askok, atentziorik ez jaso izana herri bezala ere ahuldu egiten gaituela uste dut".

Urdangarinek Frankismoarekin gorpuzkinekin oraindik bueltaka dabilzala dio. "Orain dela 80 urteko kontuak! Gurea 25 urte atzera pasa zen, pentsa! Guk ere gure aletxoak jarri behar dugu, gurea bezalako pentsamendurik ez dutenekin elkarriketa sustatuz. Gero torturak badu gauza bat: ez da ikusten. Kanpotik ondo gaudela dirudi, baina barrutik ikusten ez dugun mina daukagu.

'Por algo será' esaldi hori hor dabil bueltaka, oraindik...". Esaldi horrekin lotuta, egun bizi den errelatoaren borroka, Urbistondoren hitzetan: "Herri honetan egi asko daude. ETAk jende asko hil duela? Bai, egia. Baina milaka torturatu ere badaude, eta polizia enfrentamenduetan hildakoak ere bai. Onartuko al da noizbait? Mekanismoak jarri beharko dira kaltetu guztiei eskatzen duten laguntza emateko, zauriak sendatu eta kanalizatzeko. Erreparazioak zintzoa eta benetakoa izan behar du, ez bati edo besteari komeni zaiolako".

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ANA SANZ, AMAIA ETA JON HUIZI JOXEAN HUIZI ULANGAREN FAMILIA

Huiziren etxeko eskertza-oharra

"Ohar honen bidez, SD Euskalduna taldeko zuzendaritza taldeari esker ona adierazi nahi diogu, gure aita eta senarrari antolatutako omenaldiagatik.

Bereziki hunkigarria izan zen guretzat omenaldi ekitaldi hori aurreko lehendakariekin batera partekatatu izana. Joxean bezalako pertsonak dira, haien bizitzaren uneren batean euren denbora eta lana klub honen alde ekitera eramane zutenak. Boluntarioki, gainera. Joxeanentzat Euskalduna Andoaingo nortasunaren ikurretakoa zen. Ia 100 urteko erakunde soziala izatean, herriko zaharrenetakoa da eta horregatik merezi du aitortza hori.

Une hauetan bere ondoan hamar urtez lankide izan zituena ez ditugu ahaztu nahi. Batuta, lan eta lan eta leialki ari zinetela kontutan hartu zuen beti. Mila esker bere ondoan egoteagatik.

Euskalduna osatzen duen komunitate osoari ere eskerrak eman nahi dizkiogu: Entrenatzaileak, jokalaria, bazkideak... une zail hauetan zuen babesa eta elkartasuna helarazi diguzuelako. Guretzat oso baliagarria izan da.

Bihotz bihotzez mila esker".



POSTONTZIA

EUSKARALDIA

Euskaraldia, hitzorduak Andoainen eta Urnietan

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean egin dezagun euskaraz. Euskal Herri osoan eta elkarrekin arituta, gure egunerokoan eragin genezake.

Nola egingo dugu? Ondoko bi roletako bat har dezakezu hamaika egun horietan:

Ahobizi: "Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet".

Belarriprest: "Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut".



Andoainen dagoeneko Andoaindarra euskaraz webgunean izena eman daiteke. Aukera telematikoa horrez gain, informazioa jaso edota izena eman ahal izango da larunbat honetan, irailak 22, goizeko 11:00tik aurrera Juanita Alkain plazan.

Urnietan

Urnietan Euskaraldia antolatze-ko batzorde herritarra sortu da,

eta astero ekimena abiarazteko bilerak egiten ari dira, Errekalde 1 kalean bilerak egingez. Asteazkenero biltzen gara, 19:00tan hasita. Laguntza ongi etorria da, eta parte hartu edo batzordearen norakoaren berri jakin nahi baduzu, urnieta@euskaraldia.eus posta elektronikora idatz ezazu edo eta 688 638 617 telefonoz zerbait deitu. Sare sozialetan ere aurki gaitzakezu Euskaraldia Urnietan izenarekin.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALJATUAK: nesteez, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietan Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berlitasunerako Zuzendaritza


ZIURTAGIRIA: Bitarn

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

SANMIELAK 2018

URNIETA



2018
SANMIELAK
URNIETA
JAIATAN

Urnietako Udalak
gehigarri hau argitaratuz
jairik zoriontsuenak
opa dizkizue urnietar guztiei

Urnietako
udala

The bottom section features a dark teal background. On the left is a colorful illustration of a town at night with a large, stylized letter 'L' in the sky, representing the festival's logo. The text is in a light yellow/gold color. On the right is a white graphic element resembling a Polaroid photo, containing a stylized 'L' logo and the text "Urnietako udala".



David Rosco zinegotzia, Gorka Iribar kultur teknikaria eta Mikel Pagola alkatea, Sanmiel jaien aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Sanmielei hasiera emateko prest

Asteburu honetako lehen ekitaldiekin jaietako suziria piztuko da. Metxa bizi-bizi izango da irailaren 27tik 30era, eta azken traka urriaren 6an eta 7an iritsiko da. Ospakizun artean emango diote amaiera jaiari.

Olatz Lasa URNIETA

Marizulotik iritsiko da Miela, mendialdea une batez alde batera utzita. Udaletzeko balkoira iristean ikusiko dituen lehen urnietarren artean Adarramendiko parajeak bikain ezagutzen dituen pertsona aurkituko du: Jokin Lizeaga lasterkaria, nor bestela. Hark emango dio hasiera jaiari. Mendian gozatu ederrak

hartu ditu Lizeagak, baita ezustekoak ere. Lesio larria izan zuen udaberrian, eta osatze bidean da. Jaien hasierako txupinazoa botatzen duen bitartean urnietarren aitortza berria jasoko du.

Sanmieletako giroa asteburu honetan berotuz hasi bada ere, jaiak datorren ostegunean hasiko dira. Igandea bitarte doze-

naka ospakizun izango da. Jaietako amaiera urriaren 7an emango diote, tradizioari jarraipena emanez.

Ostegunean, txupinazoaren aurretik, Euskaraldiaren aurkezpena egingo dute. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan zabalduko den ariketa kolektiboa izango da eta. Urnietan ere bat egingo dute

ekimenarekin. Egitasmoaren irudi bilakatuko den hamaikakoa aurkeztuko dute Urnietako jaietan. Urtea amaitu bitarte euskaraz zerbait edo asko dakiena aktibatu nahi dute, euskararen erabilera kalean eta egunerokoan ohiko bilakatu dadin.

Txosna baten ardura eskubaloi taldearen esku

Aurten UKE eskubaloi taldeak txosna baten ardura hartuko du. Indartsu ekingo diote, eurek bere gain hartu dituztelako jaietan ohiko ekitaldi bilakatu diren patata tortilla lehiaketa eta oilasko afaria. Lehen, ardura hori beste talde batzuen zen, eta eskubaloi taldeak bere gain hartu du orain.

Txistulariei omenaldia

San Migel egunean Udalak herriko txistulariei omenaldia egingo die. Ondoren Txanbolin txistulari bandak musika eta dantza emanaldia eskainiko du San Juan plazan. Bertan danborradarako doinu berriak aurkeztuko dituzte, Mikel Pagola alkateak aurreratu zuenez: "Herriar baten eskariz danborradan jotzeko moduko bost pieza sortu zituen Jose Ignazio Ansorenak, eta aurten lehenengo aldiz entzungo dira Urnietako jaietan".

Bi kanpaina

Udalak kontzientzia kanpaina bikoitza eramango du aurrera. Eraso sexisten aurkakoa, batetik, eta alkoholaren kontsumo arduratsuen aldekoa bestetik.

Bertan arreta zerbitzua

Urnietarrentzat ohar garrantzitsua: Udaleko arreta zerbitzua itxita egongo da ostiralean.



Jokin Lizeaga. AIURRI

Txupinazoa Lizeagaren eskutik

Urte berean oso bestelako egoerak bizitzea egokituko zaio Urnietako kirolari handiari. Apirilean Asturias aldeko mendi lasterketa batean erorketa itsusia izan eta heriotzarekin borrokan ibiltzetik, herrikideen aitortza jasotzera igaro da.

Arantzak eta arrosak, hilabete gutxiko epean.

Atzera begira jarrita, Jokin Lizeagak Iñistorra euskaltzaleen elkartearen eskutik "Urnietar Prestu" izendapena jaso zuen, eta gogoangarriak izan ziren Jakutegi plazako karpan eskertza adieraztearekin batera mendiaren alde eta etxekoan alde izan zituen hitzak.

Ostegunean, suziria piztuz, berak emango dio hasiera jaiari.

MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

Ondo pasa jailetan!

Errekalde, 14. Urnieta
943 008 604 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com

IZAN KONFIANTZA GUGAN!

ACADEMIA IDIOMAS G.F ANDOAIN

Tel.: 943 591 508

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Ondo pasa festetan!

www.academiagfandoain.com

- Gure ardatza Cambridge azterketak dira.
- Maila guztiak: STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET, FIRST, CAE...
- 2018ko uztaileko azterketatan %88 gainditua CAEn eta %88a First-en.
- STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET azterketatan %100 gainditze tasa.
- Taldeak goiz eta arratsaldean.
- Talde txikiak.
- Speaking klaseak.
- 4 edo 5 urtetik aurrera.

Galardi 10, 1A etorri edo deitu

Ekitaldiz beteriko jaien atarikoak Urnietan

Egape dantza taldeko helduenek "Ez utzi dantzatzeari" kaleko emanaldia eskainiko dute ostiral honetan, ekainean arrakasta handiz aurkeztu eta gero. Sanmielen atarikoak ekitaldiz beterik dator. Haurrentzat bada hitzordu nagusia: Super H festa

Erredakzioa URNIETA

'Euskal jaiak' izan zitezkeen, izen horrekin, Urnietan Sanmielen atarian antolatzen diren ekitaldiak. Euskal tradizioekin uztartutako hitzorduak baitira, ia guztiak: Dantza emanaldiak Egaperen eskutik, sagardo txapelketa Sagardozaile elkartearen eskutik, bertso afaria Poxta Zahar gazte taldearen eskutik, mendi lasterketa txikia eta haur jolasak Super Hren eskutik...

Dantza

Egape dantza taldeak maila handiko bi ikuskizun eskainiko ditu asteburu honetan. Ekainean "Ez utzi dantzatzeari" saioa ikusi ez zuenarentzat, eta baita errepikatatu nahi duenarentzat ere, ostiral gaueko emanaldia gomendagarria da. Larunbat arratsaldean "Koloredantz" eskainiko dute Saroben, eta sarrerak dagoeneko salgai daude.

Bertsoak

Poxta Zahar taldeak jaien arrereko bertso afaria antolatzeari ekin dio, beste urte batez. Oianumeko afarirako eta bertso saiorako sarrerak San Juan plazako Kantoin salgai daude. Aurtengoan Agin Laburu eta Unai Agirre bertsolariak arituko dira kantuan.



Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia aurtun Urnietatik igaroko da. AIURRI

Sagardoa

Sagardogileen elkartearen eskutik, Euskal Herriko sagardo txapelketa herrikoia finalaurrekoa Batzokian izango da, 20:00tan hasita. Honakoa izango da menua (26 euro): Basatxerri lontxeatua, entsalada, ajoarrieroa, xolomoburua eta Idiazabal gazta sagar dultzearekin.

Txapelketaren bereizgarria honakoa da: afarira hurbildu direnek emango dute sagardoaren puntuaketa. Afaltzera datorena, beraz, epaimahaikide izango da. Urnietakoa azken finalaurrekoa izango da, eta finala hilaren 29an Usurbilen. Euskal Herri osoko 41 sagardo ezberdin aurkeztu dituzte lehiaketara.

SANMIELEN ATARIKOAK



IRAILAK 21

OSTIRALA

22:00 "Ez utzi dantzatzeari" dantza emankizuna San Juan plazan. Euriarekin, frontoian.

IRAILAK 22

LARUNBATA

10:00-12:00 Orientazio proba San Juan plazan, adin guztientzat.

16:30-20:30 Super H festa San Juan plazan. Apar festa, mendi lasterketa txikia, jolasak...

19:00 "Koloredantz" dantza ikuskizuna Saroben.

20:00 Sagardo txapelketa Batzokian.

21:00 Bertso afaria Oianumen.

IRAILAK 23

IGANDEA

09:00-10:00 Pintura lehiaketaren izen-ematea Saroben.

10:00 Extremadurako produktuen dastaketa.

12:00 Virgen de Guadalupe.

19:00 Pintura lehiaketaren sari banaketa Lekaion.



SANMIEL JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGUI!

 **magale**
IKASTETXEA

 **salestarrak**
URNIETA

 **URNIETA**



SANMIELAK URNIETAN 2018

IRAILAK 27

OSTEGUNA

16:00-18:00 Urnieta Selfie!
proba-jolasa, Gaztelekutik
abiatuta 11-16 urteko
gazteentzat.

17:30 Bingo eta petanka Denda
Berrin.

18:00 2017ko irailaren 1etik
aurrera jaiotako
herrikideei jaietako
zapia jarriko diete
Kontzejupean.

18:30 Erraldoi eta buruhandien
kalejira Plazido Muxikatik
hasita, Bosko Anitz
Txarangarekin.

19:00 Euskaraldia Urnietan
Hamaikakoaren aurkezpen
ekitaldia.

19:30 Kanpai jotzea eta Mielaren
jaietsiera, kanpandorretik
Udaletxera.
Txupinazoa Jokin Lizeagaren
eskutik.
Bosko Anitz Txarangaren
kalejira eta txosnen irekiera.
Tortila lehiaketa UKEko
eskubalo elkarteak
antolatua.
Gau tematikoa: XX. mendeko
pertsonaiak.

23:00-00:30 Monolokos
bakarrizketa saioa San Juan
plazan: Humberto Gutierrez,
Maribel Salas eta Jose Cruz
Gurrutxaga. Euriarekin
Saroben.

IRAILAK 28

OSTIRALA

09:30 Diana Txanbolin txistulari
bandarekin.

10:30 Alkate Txikien izendapena
Udaletxean.

10:30 Belauntxingo dantza
emanaldia.

10:30-13:00 Kiroi txapelketak
9-14 urtekoentzat Azkorten.

11:00-14:00 / 16:30-18:30 Haur
eta gazte parkea Egape
ikastolako jolastokian.

16:30 Mahai joko eta toka
txapelketa Denda Berri
elkartean.

17:00 Kontzejupeko eskupilota
txapelketaren finalak.

17:00 Gazteen arteko jokoak.

17:30 Markeliñeren Chef Nature
antzerki emanaldia Etxeberri
plazan. Euriarekin, Egapen.

18:00 Kantupotea San Juan
plazatik.

19:00 Xaibor! diskofesta San Juan
plazan.

20:00 Alkate Txikien botere uztea
udaletxean.

21:00-23:00 Oilasko-afaria
txosnagunean. Txartelak
Gurian: 16 euro (2
lagunentzat).

23:00-02:00 Oihan Vega DJa San
Juan plazan.

23:00 Sad Mirri, Kea eta IRA
musika taldeak
txosnagunean.

07:00 Zumba San Juan plazan.

IRAILAK 29

LARUNBATA

09:30 Diana, Txanbolin.

09:30 Probitzia mailako bolo
txapelketa.

10:00-13:00 Bakailoa pil-pil
erara, Maxter-Txef txiki
lehiaketa txosnagunean.

11:00 Haur jolasak Etxeberri
plazan.

11:00 Meza Nagusia.

12:00 Pasai txarangaren kalejira.

12:00 Udal omenaldia Urnietako
txistulariei.

12:00 Txanbolin txistulari bandaren
musika eta dantza
emanaldia.


12:00 Poxta Zahar elkartearen
poteoa, Guriatik abiatuta.

14:00 Adinekoen bazkaria
Oianumen.

14:00 Emakume koadrillaren
bazkaria.

14:30 Bazkari herrikoa
txosnagunean, Poxta
Zaharren eskutik.
Txartelak agortu arte Gurian
salgai. Eroste azken
eguna, irailaren 23a.


Gaztelo
GOZOTEGI
BONBONERIA
ARTISAUA
Gora Sanmielak!
Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584


Sanmielak 2018
Egape Ikastola
jelaiontsuakigeroi

16:30-18:00 Holi Fest! Plazido Muxika plazan, 11-16 urtekoentzat. Euriarekin Egape ikastolako jolastoki estalian.

17:00-21:00 Pasai txarangaren kalejira.

18:00 Trapu Zaharraren 'Se fini!' Ikuskizuna San Juan plazan. Helduentzat, gazteleraz.

18:00 Tropicana orkestra Plazido Muxika plazan.

18:00 Barbakoafest! pintxoak eta edariak San Juan plazan. DJ Katxorro.

18:00 RKeR elektrotxaranga, Idiazabal kalean zehar.

19:00 Urdanbor, irteera Plazido Muxikatik.

19:15 Danborradaren saioa eliza barruan.

22:30 Bertso saioa Saroben: Andoni Egaña, Eli Pagola, Agin Laburu, Miren Amuriza. Gai-jartzaila: Amaia Agirre.

23:30 Urdanbor, irteera Idiazabal kaletik.

23:30 Kaotiko eta Garilak 26 txosnagunean.

24:00-02:00 / 02:30-04:00 London Orkestra San Juan plazan.

07:00 Orkresta elektrotxarangaren kalejira.

IRAILAK 30

IGANDEA

10:00 Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.

10:30-13:30 Txorizo eta sagardo postua San Juan plazan.

11:00 Haur danborradaren hasiera.

12:00-13:30 Egape danbor eta Magale haur danborraden elkargunea San Juan plazan. Ondoren kalejiran abiatuko dira.

17:00 Stunt motor ikuskizuna Idiazabal kalean.

17:30 Apalatxe eta Olatz Salvador zuzenean txosnagunean.

18:00 Erraldoi eta Buruhandien kalejira, San Juan plazatik.

18:30 Mattin Mujika pilota jaialdia. Erremontea: Imanol Ansa II Josu Arruarte // Ander Goikoetxea Xabier Azpiroz. Esku-pilota: Ojuel-Gorrotxategi // Santxo-Azan.

19:00 Lisker San Juan plazan.

20:30 Dantza-Soka, Mielari agurra, azken traka San Juan plazan.

URRIAK 6

LARUNBATA

19:00 Dantza ikuskizuna Saroben: Aurrera Gure Ametsa eta Valladolideko La Trébede.

URRIAK 7

IGANDEA

10:00 Diana, Txanbolin.

11:00 Meza elizan.

12:00 Ingurutxoa eta Jalgi Plazara jaialdia San Juan Plazan.

12:00 Valladolideko produktuen salmenta San Juan Plazan.

12:00 Munduko ardoen dastaketa.

17:30 Herri kirol erakustaldia. Astigarragako Emarri neska-taldea harriari tiraka.

18:00 Txekor jate solidarioa.

18:30 Willy Etxeberria zesta punta memoriala: Lertxundi-Manzisor // Goixerri-Andonegi.

18:30 Puro Relajo rantxerak, korridoak eta euskal kantak San Juan plazan.

18:30 Azken traka eta jai amaiera.

Jaiei loturiko oharra

Patata tortilla lehiaketa irailaren 27an

Irailaren 22a da txartela erosteko azken eguna. 2 euroko prezioan sagardoa, ardoa, ogia eta aulkia. Gurian salgai.

Oilasko afaria irailaren 28an

16 eurotan bi lagunentzat oilaskoa, entsalada, sagardoa, ardoa, ogia eta aulkia. Gurian salgai. Irailaren 22a da txartela erosteko azken eguna.

Dantza soka herrikoia

Irailaren 30ean San Juan plazan izango da, 20:30ean hasita. Entseguet ekin diete, Saroben. Edu Muruamendiarek zuzenduta, ekitaldia irekia da: egapedantzaldea@gmail.com



HK10 hotelak Sanmiel jai zorientsuak opa dizkizue

Elorri gurera Parrilla menu berezia dastatzera

Erreserbak: 943 33 73 57 edo info@hotelk10.com



ITXASPE Sanmiel jai zorientsuak!

Frutategia, izozkiak eta gozokiak

Zelaialde, 2 • Urnieta TEL.: 943 009 427



SUPERH FESTAK

Urrietako plazan **IRAILAK 22**

10:30ean I SuperH orientazio PROGA

16:30ean IV URNIETAKO mendilasterketa TXIKIA

APAR-FESTA PAILAZOAK JOLASAK

PRIMERAN PASATZEKO EGUNA



Ikusgarria zen bere jokoa. Denbora tarte txikian elitera iritsi eta onenen pare jokatzera iritsi zen Mattin Mujika urnietarra. AIURRI

Mattin Mujika kirolari handia

Hogeita bost urte bete dira Mattin Mujika Urnietako pilotari bikaina hil zenetik. Aiurrik gogoan hartu du, bere emazte Junkal Gutierrez eta Mattinen anaia Jose Luisen laguntzarekin. Behar baino lehen amaitu zen kirol ibilbidearen historia da Mujikarena

Xabier Lasa ANDOAIN

Oso denbora tarte txikian erremon-teko elitean sartu, eta lehiaketaz lehiaketa etengabeko garapena bizitzen ari zen pilotaria izan zen. Ikusteke geratu zen noraino iritsiko zen, gaitz malapartatu batek 28 urterekin heriotza eragin ez balio.

Joko ikusgarrikoa, atzelari ziurra, tekniko, errebote-jokalaria fina... Mattin Mujikaren jokoak definizio ezin hobek eragin zituen garai hartako erremon-teko kazetari, aditu eta zale-tuen ahotatik.

Urnietan bertan, kirolari batekiko gutxitan sortu ohi den ikusmina piztu zuen. Ez soilik pilotazaleen artean, baita kirolzaleen artean ere.

Mattin Mujika 1965eko maiatzaren 3an jaio zen. Aurretik bi

**URNIETAN KIROLARI
BATEKIKO GUTXITAN
SORTU OHI DEN
IKUSMINA PIZTU ZUEN
MATTIN MUJIKAK**

anaia zituen, Jose Luis eta Joxe Mari. Aita eta ama, berriz, Jose Mari eta Maddi.

Kirolari bezala txiki-txikitatik aparteko dohainak erakutsi zituen. Hala azaldu du Jose Luis anaia: “Eskuz aritu zen gaztetan, eta ez edonola. Kontzejupean orduak eta orduak sartutakoa da Mattin, edonorekin eta edozein adinekoeekin jokatzeko prest beti. Lehiaketetarako jauzia eman zuenean, maiz iritsi zen Urnietan, Hernani nahiz Astigarragan gazteentzat antolatzen ziren txapelketetako finalera”. Kirol

mailan, futbola zen bere bigarren pasioa. Juanito tabernako lagunekin jokatzeko eskualde mailako txapelketetan. Anaiaren esanetan “abila zen futboleant, eta aurrean jokatzeko; berak hartzen zuen golak sartzeko ardura”.

Salesiarretan ikasketak egiten ari zela, 16 urterekin, Salaberria ikaskideak Galarretako erremon-te eskolan izena eman zezan animatu zuen. Anbizio handirik gabe ekin zion erremon-teari. Baina, azkar batean, Izagirre zarautzarrarekin bikote eginez, Espainiako jubencil mailako txapelketa irabazi zuen. Bi urteren buruan, Euskal Jai Berrin debutu egiteko aukera eman zioten. 1984ko uztailearen 13an izan zen hori. Garcia bikotea aurrean zuela, Salaberria-Astrain aurkari izan zituen.

Jose Luisek, hasiera haiek gogora ekarrita, Mattini debutaren poza ondorengo emaitza kaskarren gaziarekin nahastu zitzaizela oroitzen du: “Kabituz ezin hartu zuen debutaren albistea, baina jokatzeko hasi, eta sei edo zazpi partida bata bestearen atzetik galdu zituen. Uztokotan egon zen”. Bere buroarengan zeukan segurtasunak eta kirol-zalatasunak, ordea, hautatutako bidetari temati eustea eragin zion. Erremon-teko pilotazaleen “katedran” ere ez ziren oso komentario baikorrak egiten hasiera haieran. Batzuek ziotenez, txikia zen mutila, eta ahul samarra. Agudo asko botatzen zuten sententzia: “ez da pilotaria irtengo”.

Poliki-poliki goranzko bidea hartzen hasi zen, tartean 1985-1986 urteetan Madrilen soldaduska egin zuelarik. 1988ko urtarrean estelarreko partidatan jokatzeko hasi zen Galarretan zein Huarteko Euskal Jai Berrin. Urte berean, binakako txapelketa jokatu zuen lehenbiziko aldiz, 23 urte besterik ez zituenean. Elizalde aurrelariarekin jokatu finalera iritsi ziren, aurreko neurketa guztiak irabazita. Finala jokatu aurreko egunetan min hartu zuen Muji-

ka, eta hamar egun berandua-go jokatu behar izan zuten. Finalera ez zen erabat osaturik joan, eta Noain-Agerre bikotea irten zen garaile, 40-32 emaitzarekin. Galdu arren, Mujikak merezitako ospea irabazi zuen pilotazaleen artean. Eskaintzen ari zen jokoaz gain, pilotazaleen oroimenean bi datu geratu ziren itsatsita: errebotetik hamalau pilota itzuli zituen, bat izan ezik gainerakoak txapa gainera itzuliaz, eta horietako asko bi horretara. Sakez, gainera, bederatzita egin zituen. 118 partida jokatu zituen 1988ko urte hartan; hiru egunetik behin zuriz jantzita, alegia. Inork ez zuen jada zalantzarik: punta-puntako pilotaria bilakatu zen.

Junkal Gutierrezek, sasoi hartan erremon-teak bizi zuen panorama loriatsua deskribatu digu: “Erremon-tearen urrezko aroa egokitu zitzaion Mattini. Punta-puntako pilotari mordoa zegoen orduan: Elizalde, Intxausti, Agerre, Mujika I, Matxin, Izagirre, Aizpuru..., eta denen jokorekin txapelketa lehiakor eta erakargarriak antolatzea lortu zuten; garai hartan ez zen ezagutzen gerora etorri zen Koteto Ezkurraren nagusitasunaren antzeko fenomenorik. Galarretan astean hiru jaialdi antolatzen ziren, abuztuaren egunero; jendez gainezka ikusten ziren armailak. Apustueta dirua barra-barra jokatzeko. Prentsaren arreta eskuratzen zuen erremon-teak. Dirua mugitzen zuen erremon-teak, eta pilotarietako ondo irabazten zuten...”.

1989ko ekainean, Udaberriko bikoteen txapelketa irabazi zuen Arregirekin, Gorritz-Eizagirreren aurka (40-33). Eta urte horren hondarrean, bikoteen txapelketa handia jokatu zuen bigarren aldiz. Andoainen bizi zen Ricardo Prat madrildarra jarri zioten bikote, eta ezin hobeto moldatu ziren biak; ez zuten partidarik galdu, eta txapela jantzi zuten abenduaren 23an Gorritz-Aizpuruaren aurka jokatu finala (40-32).

Mattinek txapelketako pilotaririk onenaren saria eskuratu zuen, eta laudorioak besterik ez zitzaizkion heldu. Orduko prentsako kronika eta iritzi-zutabeak irakurri besterik ez dago. Raul Jimenez erremon-te jokalaria ohiak hala zioen: “badi-rudi ez duela zigortzen, baina inork baino latzago ematen dio

**BIKOTEKA GOI MAILA
IRITSI ETA GERO,
BURUZ BURUKOAN
NAGUSITZEKO
ANBIZIOA ZUEN**



Junkal Gutierrez eta Jose Luis Mujika, Mattin Mujikaren argazkiekin. AIURRI

pilotari; badirudi ez duela men-
deratzen, baina kantxan jaun
eta jabe bihurtzen da”. Jesus
Abrego beste jokalaria handiak,
berriz, hala zioen: “Mujika II-ri
tanto bat egiteko, ederki atera
behar da izerdia. 40 pilotakada
behar dira gutxienez. Bere jokoa
ikusi eta niri ere kantxara ir-
teteko gogoia ematen dit; gozatu
ederra izan behar du bera atzean
dela jokatzek! Hutsuneak inork
ez bezala kubritzen ditu, eta
pilotari emateko behar den to-
kian dago beti”. El Diario Vas-
co egunkariako kronikalaria bide
beretik zihoan, Mattinek erre-
monterako dohain eta adimen
naturalak zituela aitortu ostean:
“Kantxan behar den bezala ko-
katuta egoten da beti, bikotearen
atzean. Pilotak ez dauka sekre-
turik berarentzat, eta horrexe-
gatik maite dute pilotazaleek”.

Egunez egun handitzen

Gehiago izan zitekeela erakutsi
nahi zuen, heldu zen lekura
helduta ez zen konformatzen.
Junkalen hitzetan, “metodikoa
eta profesionala zen; eta zaintzen
bazekien, parrandatan-eta
denbora galdu gabe. Gimnasia
joaten zen, mendian –batik bat
Adarra aldera– korrika edo oinez
ibiltzen zen...”.

Enpresak antolatzen zituen
jaialdietako partida estelarren
zain egoten ziren pilotazale

GAIXOTASUNAREN LEHEN ZANTZUAK ANTZEMANDA, 1992AN JOKATU ZUEN AZKEN PARTIDA

ugari, egunez egun hazten ari
zen Mattin ikusteko irrikatan.
Egin egunkariako E.M. kirol
kazetaria jakitun zen, eta zera
zioen 1990ko urtarrilaren 4an
idatzitako kronikan: “(...) Iritsi
den tokira baino urrunago iri-
tsi nahi duen atzelaria da Mu-
jika II. Txapelduna da, eta jo-
katzen duen partida bakoitza
bere gaitasun defentsiboaren
eta ofentsiboaren erakustaldia
bilakatzen da”.

Bere jokoa ikusgarria zen,
Junkalek adierazi duenez: “gor-
putz elastikoa zeukan, eta kan-
txan gorputza gutxiak bezala
botatzen zuen lurrera oso zailak
ziren piloten bila; berdin zion
horretarako zilipurdika ibili
behar bazuen. Gainera, askotan
ez zen mugatzen itzultzera; zeu-
kan teknikari esker, pilotak nahi
zuen lekuan kokatzeko gaitasu-
na zuen”. Frontoko argazkila-
rientzat ere gozamen hutsa zen
Mattin, argazkiak postura ikus-
garrietan ateratzeko aukera
ematen baitzien.

Buruz burukoan, nor zen erakutsi behar

Bere ibilbide motzean bikoteka
lortutako ospeak ez zuen asko-
rako balioko, baldin eta buruz
buruko txapelketa ofizialean ez
bazituen bere dohainak erakus-
ten. Era horretan 1989, 1990 eta
1991ko buruz buruko txapelke-
ta nagusietan jokatu zuen, eta
hiruretan finala jokatzeko atarian
geratu zen. Sei pilotari onenek
jokatzen zuten lehiaketa horie-
tan zehar, eta Mattinek erre-
montearen gailurrean ziren
Mujika I, Matxin edo Agerre
bezalako pilotariei irabazteko
gai zela erakutsi zuen.



Zutik, atzean: Ramon Urdangarin, Xanti Gorrotxategi, Ramon Etxeberria, Luis Mari Ziaurritz, Batista Urdangarin, Mattin Mujika, Juanito Albusu, Antselmo Unanue eta Juanin Arruarte. Bigarren lerroan: Mikel Alberdi, Gabriel Mujika, Toni Falcon, Bixente Erdozia, Jon Eizagirre eta Juan Urdangarin. Hirugarren lerroan: Maitane Txapartegi, Patxi Txapartegi, Jaime, Ramon Altuna, Daniel Sasiain eta Ana Pulpon. Aurrean: Antonio Iriondo, Joxe Martin Amantegi, Joxe Olazabal, Jose Luis Mujika eta Xabier Lete. Barraren atzean, Pello Txapartegi, Beñat Txapartegi eta Agurtzane Garmendia. 1989ko bikote mailako finala galdu arren, Marizulo jatetxean afaldu eta goizaldera arte, Urnietako kaleetan barrena kalejiran ibili ziren.

Zaletu amorratuak zituen Urnietan bertan

Mattin Mujikak Urnietan pilota
zaletasunari egundoko
susperraldia eman zion. Anaiak
gogoan duenez, “Urnietan beti
izan zen pilotarako afizioa, baina
nabarmenduko ziren pilotariak
falta izan zitzaizkion beti. Garai
hartan, oker ez banago,
Etxeberria zesta puntista besterik
ez zen. Anaiak ilusioa piztu zuen,
eta partida handiak jokatu behar
zituenean, jende mordoia
eramaten zuen atzetik;
sutsuenak, bere kuadrilako
10-15 lagunak, Juanito
tabernako bezeroak eta futboleko
lagunak izaten ziren”.
Urnietako bonboa, esku-soinua
eta horien burrunba aski ezagun

egin ziren frontoian. Orduko garai
hartan ez zauden horrelakoetara
ohituta. Heine batean Urnietako
zaletuak izan ziren pilota modu
sutsu horretan bizitzeko
aitzindariak. Pratekin batera
1989ko abenduan irabazi zuen
txapelketa nagusiaren
biharamunean, Jesus Abrego
erremonteko jokalaria ohiak, hala
zioen: “Mujika ilk partida erdia
behar izan du asentatzeko. Uste
dut bere lagun txarangak ez
diola onik egin. Mutiko gazte
batentzat ez du erraza izan behar
hainbesteko presioa jasatea,
kezkatuta ikusi dut”.

Jose Luis anaia ez da
Abregoren iritzikoa: “Gaztetan

final ugari jokatuakoa zen,
bazekien jendearen
begiradapean jokatzeko. Plaza-
gizona zela esango nuke,
Animoekin ez dut uste kikilduko
zenik, kontrara, gehiago
animatu!”.

Mattinek biziki eskertu izan
zuen beti herrikideak horren
gertu edukitzea. Garaipen handi
baten ostean, normalki, Marizulo
jatean adiskideekin eta
Urnietako jarraitzaileekin afari
baten inguruan biltzen zen.
Urnietako Udalak Mujikari
omenaldia eskaini zion
udaletxean bertan 1989ko
txapelketa irabazi eta egun
batzuetara.

Erregularitasuna eta eskar-
mentua falta zitzaion, eta hori
denborarekin konpon zitekeen.

1990eko San Fermin jaietako
buruz buruko sarian, finalera
iritsi eta Peio Aizpuru garaitzea
lortu zuen (35-25).

1992an zehar, eskuineko besoan
indarra ahitzen ari zitzaioala
nabari zuen Mattinek. Urte
berekoko uztailearen 8an bere azken
partida jokatu zuen; Matxin izan
zuen bikote, eta Elizalde eta
Aizpururi 40-30 irabazi zieten.
Hartaz gero, bizkar-muinean
minbizia zuela antzeman eta

urriaren 8an Basurtoko ospita-
lean ebakuntza egin zioten. Gai-
tza larria zen, eta 1993ko apiri-
laren 28an hil zen.

Apirilaren 30eko Galarretako
jaialdia bertan behera geratu
zen; pilotari eta pilotazale guztiek
Urnietako hiletan egon nahi
izan zuten. Frontoian Mattinek
utzitako hutsunea nabaria zen,
eta horrela, 1993ko irailaren 4an
Galarretan jokatu zen buruz
buruko finalean, omenaldi hun-
kigarria eskaini zioten. Jose
Luisek eta Junkalek oroigarria
jaso zuten Agerreren eskutik.

Oroitzapena bizirik

Haren oroitzapena bizirik man-
tentzeko memoriala jokatzeko
Sanmieletan, 2000az geroztik.
Ingurukoek bereziki oroitzen
dute Mattin. Bere emazte izan
zen Junkal Gutierrez atzera be-
gira jarri da: “Etorkizun oparoa
zuen pilotari bikaina izan zen.
Etxekoentzat, berriz, pertsona
onbera, gertukoia, goxoa eta alaia
izan zen. Pentsa, lagunek *Txin-
txo* deitzen zioten. Xumea, lagu-
nen laguna zen. Gaixotasun la-
rriak jota egon zenean ere, bere
jarrera ereduagarria izan zen”.

Uda giroan ospatu zituzten jaiak Etxeberrin

Joan zen ostiralean eta larunbatean, uda beteko giroan, Etxeberri auzunea ospakizunetan murgildu zen. Familia giroko ospakizunak izan ziren, auzo hartako populazioaren adierazgarri dena



Ama-alabak, lagunartekak, gurasoak... behin probatu eta gero, gogotsu igo ziren taulagainera karaokean parte hartzera. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Azken bi urteetan fenomeno bikoitza gertatzen ari da Urnietan: Ikasturtearen hasiera mailakatu, asteburuan antolatzen diren ospakizunekin uztartzen dira. Etxeberri auzoan, eguraldi ederra baliatuta, auzo izaera indartzeko ospakizun ezberdinak burutu zituzten: Auzo bazkaria, karaokea, patata tortilla lehiaketa... Hurrengo bi asteburuetan jai ezberdinez gozatzeko pagotxa izango dute urnietarrek.



Patata tortilla lehiaketa eta bingoarekin osatu zuten larunbat arratsaldea. AIURRI



Auto klasiko ugari ikusteko aukera izan zen Idiazabal kalean. AIURRI

Ehun ibilgailu klasiko ikusteko aukera Idiazabal kalean

Auto klasikoen erakusketa oparoa ikusgai izan zen Urnietan, joan zen igandean

Erredakzioa URNIETA

Eguraldi bikaina zegoen igande goizean. Idiazabal kalean, denborak atzera egin zuen. XX. mendean zehar aski ezagunak ziren ehun ibilgailu klasiko ikusgai zeuden kalean. Haietako batzuk bere horretan zeuden, egin berriak izan balira bezala. Beste batzuk tuning saio ez-

berdinetan hobetu edota apainduta zauden. Batzuk eta besteak, guztiak, bertatik igarotzen zirenen arreta bereganatu zuten. Goizean zehar auto klasikoak ikusgai izan ondoren, partehartzaileak txangoa egitera irten ziren euren ibilgailuekin eta lagunarteko bazkaria eginez amaitu zuten ekitaldia.



Auto zaharrak izanik ere, berri-berriak balira bezala zaintzen dituzte. AIURRI



CERAMICAS NOGALES S.L.

URNIETA

Ondo pasa Sanmieletan

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltsua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Errekalde, 10
20130 Urnieta
Tel./Faxa: 943 009 284
Tel.: 943 550 624
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com



- Zurgintza orokorra
- Armairuak neurria
- Ateak
- Zokaloak
- Leihoak
- Eskailerak



687 683 427

josebaarotza@gmail.com

'Mugitu Andoain' festa, jarduera fisiko ugarirekin

Kaleberria oinezkoen eremu bilakatuko da larunbat goizean, eta bertan eta herrigune osoan zehar hainbat jarduera fisiko egin ahal izango dira: Ipar martxa edo Nordic Walking, patinaia, txirrindularitza, atletismoa eta baita oinezko ibilbideak ere

Erredakzioa ANDOAIN

Garai bateko Kirolaren Asteari bestelako itxura ematea erabaki dute, eta aldaketa hori larunbat honetan gauzatuko da "Mugitu Andoain!" ospakizunaren bitartez. Udalak, beste behin ere, herriko elkarte ezberdinen lankidetzaz nabarmendu nahi izan du: "Ekimena Europako Mugikortasun Astearen baitan ospatuko dugu. Oraingo honetan ere Andoingo Udala ez da bakarrik jardun guzti honen antolatetan, baizik eta herriko hainbat elkarterekin elkarlanean. Hain zuzen, Irrist-Irri taldearekin, Zumeatarra kirol elkartearekin, Andoingo Txirrindulari Eskolarekin eta Bertxin elkar-tearekin".

Goizeko 10:00etan hasita, kirol jarduera ugari taldean egin ahal izango dira. Hala nola, Ipar Martxa, patinaia, lasterketa edota txirrindularitza. Ospakizun ludikoa izango da, jarduera fisikoetan murgiltzeko gonbitea.



Ana Carrere alkatea, Ixiar Olano kirol teknikaria eta Andoingo eragileak. AIURRI

Egitaraua

- Ipar Martxa: 10:30, Goikoplaza. Ikastaroa eta ibilbidea herrian barrena.
- Patinaia: 11:00, Kaleberria. Zumea plazan jokoak.
- Lasterketa: 12:00, Goikoplaza. Familian eta lagunekin aritzeko aukera.
- Txirrindularitza: 10:00, Goikoplaza. Familian eta lagunekin aritzeko aukera.
- Ibili Andoain: 11:00, Goikoplaza. 60 urtetik gorakoentzat, pasieran ibiltzeko aukera.
- Jarduera guztien amaiera: 12:30, Zumea plaza. Pintxoak eta opariak parte hartzaileentzat.



Oscar eta Blanca Villafañe, hainbat herrikide eta lagunekin batera. AIURRI

Juvenal Villafañeren aldeko lore eskaintza eta minutuko isilunea

Joan zen irailaren 16ean herritar talde batek ekitaldia antolatu zuen, haren heriotzaren urteurrenean

Erredakzioa ANDOAIN

Eskola kalea eta Makaldegi artean, ibilgailuan bonba lapa jarrita hil zuen ETak Juvenal Villafañe duela 25 urte. Urteurrena iritsi baino egun batzuk lehenago herritar talde batek omenaldi ekitaldia antolatu zuen, Jose Luis Lopez de Lacalle parkean egin zutena. Lore eskaintza eta minutuko isilunea eta gero, txalo artean amaitu zen ekitaldia. Juvenal Villafañeren familiaratik, ekitaldira Blanca alaba eta Oscar biloba hurbildu ziren.

Haiekin batera, ETak Andoain hildako Jose Luis Lopez de Lacalle Mari Paz Artolazabal alarguna edota Joseba Pagazaurtunduaren arreba Maite. Ekitaldira Estanis Amutxastegi alkate ohia ere hurbildu zen. Elkarbiziko hainbat kide bertaratu ziren, tartean Mikel Arregi andoaingarra. Andoingo PSE-EE eta EAJ-PNV alderdi-tako ordezkariak ere bertan izan ziren. Denek ere gertaera latz hura isiltasunean gogoan izan zuten.

'Ibili Andoain' berriro martxan, ehundik gora partaideekin

Aurreko ikasturtean arrakasta handiz burutu eta gero, asteazken eguerdian ikasturte berriko lehen ibilalditxo egin zuten. Kontzejupetik atera eta ordubeteko ibilalditxo egin ostean, Ambrosia Olabideko tabernan hamaiketako eskaini zitzaizen parte-hartzaileei.

Andoingo Udalez gain, laguntza eskaintzen arituko dira Euskalduna mendigoizale taldea, Caritas, Andoingo anbulategiko erizainak, Eguneko Zentruko langileak, Osasun Saila, Bertxin, Santakruz, Zuena eta Hurria-Sahara elkarteak. Ekimena zabalik dago 60 urtetik gorako herrikideentzat. Lagunartean jarduera fisikoa egitea, horixe da proposamena.



Asteazken goizean berriro zioten jarduera fisikoa sustatzeko ekimenari. AIURRI



AIURRI

Artisautza azoka

Plazaola eta Leitzaran naturbideak Nafarroa eta Gipuzkoa arteko pasabide izan dira, historikoki. Azken urteotan lasterketa sonatua egiten da, bi naturbideak zeharkatuz. Lasterketaren bezperan, Goikoplazan bi bailaratako ekizileen produktuak ikusteko, dastatzeko eta erosteko aukera izan zen. Eguraldia lagun, herrikide ugari hurbildu ziren postuetara.

ZORION AGURRAK

ANDOAIN Gorka
Gorka Diez Rezolak irailaren 24an 21 urte egingo ditu. Zorionak eta jarraitu bizitzari irribarre egiten. Ongi pasa eguna. Etxekoak.



ANDOAIN Lara
Irailaren 23an bi urte beteko dituzu. Zure urtebetetzea familia guztiarekin ospatuko duzunez, ondo pasa eta muxu handi bat.



URNIETA Jokin
Irailaren 19an 6 urte bete zenituen. Familia guztiarekin ondo pasa zenuelakoan, muxu handia.



ANDOAIN Duela
11 urtetik gure egunerokoa pozez eta irribarrez betetzen duzu. Ondo pasa zure eguna. Maite zaitugu. Etxekoak

GUARDIAKO FARMAZIAK**ANDOAIN**

Larunbata 22 eta igandea 23
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 22 eta igandea 23
TENA: Nagusia, 16.
943 543 718. Hernani.

Gauez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

GAZTE INFORMAZIOA**URNIETA**

Gaztelekua
• **Plazido Muxika**

Irailaren 7az geroztik zabalik dago. Aurtengoan, ordutegia zabaldu dute. Astelehena-asteartea: 17:00-19:30. Asteazkena-osteguna: 17:00-20:00. Ostirala: 17:00-21:00.

ANDOAIN

Gazte Lokala
• **Anbrosia Olabide**

Irailaren 7az geroztik zabalik dago betiko ordutegiarekin: Asteazkenetik igandera, 17:00etik 20:30era. Informatika Gela eta Gazte Informazio Bulegoa zerbitzuak goizetik ere zabalik izango dira: asteazkenetik larunbatera, 11:00etik 13:00era.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 21

ANDOAIN Udai ikastaroak
Izena emateko azken eguna.
Ataria, Bastero.

ANDOAIN Azoka
Bigarren eskuko azokan izena emateko azken eguna: 686 427 565.
08:00-13:30, Arreta ordutegia.

URNIETA Odol-emaileak
Odola emateko aukera berria.
18:30-20:30, Anbulatorio zaharra.

URNIETA Dantza emanaldia
"Ez utzi dantzatzeari", Egape DT.
22:00, San Juan plaza.

LARUNBATA 22

URNIETA Super H festa
Ekitaldi ezberdinak San Juan plazan.
10:30, I. Orientazio proba.
16:30, IV. Mendi lasterketa txikia.

URNIETA Dantza emanaldia
"Kololedantz", Egape DT.
19:00, Sarobe.

URNIETA Bertso afaria
Agin Laburu eta Unai Agirre, Poxta Zahar taldeak antolatuta.
21:00, Oianume. Txartelak: Kantoi.

IGANDEA 23

URNIETA Pintura lehiaketa
Haur eta helduen mailakoa.
09:00, Sarobe. Izen-ematea.



ANDOAIN 'Kalegiroan' kaleko dantza eta antzerki zikloa
Irailak 22, larunbata. 18:00, 'Consequencias'. Goikoplaza.
Irailak 22, larunbata. 19:00, 'Sagartu'. Oinkari eta Hika taldeak. Goikoplaza.
Irailak 29, larunbata. 18:00, 'Esku harriak: Oteizaren (h)aria'. Goikoplaza.
Irailak 29, larunbata. 19:00, 'Todo encaja: UpArte konpainia'. Goikoplaza.

ASTEARTEA 25

ANDOAIN Literatur solasaldia
Martin Sanchez: "Tuyo es el mañana".
19:00-20:30, Udai liburutegia.

URNIETA Liburu aurkezpena
Iñaki Alkain: "Gerrateko ibilerak".
19:00, Lekaio.

ASTEAZKENA 26

URNIETA Antzerkia
"Izoztutako haizea bezala", Tanttaka.
19:00, Sarobe. 5 euro. Euskaraz.

OSTEGUNA 27

ANDOAIN Antzerkia
"Musika galduren bila" antzezlan.
17:30, Liburutegiaren atzeko plaza.

LARUNBATA 29

ANDOAIN Azoka
Bigarren eskuko azoka.
10:00-14:00, Zumea plaza.


ANDOAIN Erakusketa
"Eten ez den soka", azken eguna.
Ohiko ordutegia, Bastero.

ZINEMA**ANDOAIN****BASTERO****El mejor verano de mi vida**

Larunbata, 22:
19:30; 22:00.
Igandea, 23:
17:00.
Ostirala, 29:
19:30.

Astelehena, 24:
19:30; 22:00.
Los increíbles 2
Larunbata, 22:
17:00.
Igandea, 23:
17:00.
Oreina
Larunbata, 29:
19:30; 22:00.

Igandea, 30:
19:30.
Astelehena, 31:
19:30; 22:00.
Luis eta estralurtarrak
Larunbata, 29:
17:00.
Igandea, 30:
17:00.

**SINOPSIAK**

El mejor verano de mi vida
Zuz.: Dani de la Orden. **Herr.:** Espainia (2018). **Iraupena:** 90 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Emandako hitza bete behar

Currok arazo ekonomikoak ditu. Semeari honakoa agindu dio: eskolan emaitza bikainak

lortuz gero, bizitzako udarik onena igaroko duela. Hark lortu du. Aitak hitza bete behar du.

Los increíbles 2

Zuz.: Brad Bird. **Herr.:** Estatu Batuak (2018). **Aktoreak:** Craig T. Nelson, Holly Hunter, Samuel L. Jackson... **Iraupena:** 118 min.

Superheroi familia bueltan da

Helenek, Bobek eta beren hiru seme-alabek osatzen dute superheroi familia. Oraingo filmean superheroiak ez dira legezkoak eta Helen superheroiak itzultzeko

kanpainaren buru da. Bob bitartean etxeko lanez eta seme-alabez, Violet, Dash eta Jack-Jack txikiak, arduratuko da. Bidean aurkariet egin beharko die familia osoak.



Maratoiko podiuma, gizonekoena eta emakumezkoena batera. AIURRI

Lasterkarien egutegian tokia egitea lortu du

Plazaola eta Leizaran naturbideetan barrena egiten diren maratoi erdia eta maratoia lasterkari askoren gogoko bilakatu dira, Leitzatik eta Lekunberriatik dozenaka parte hartzaile irten baitziren. Bertako eta eskualdeko lasterkari ugari ikus zitezkeen dortsala

jantzita, eta eurekin batera Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko beste herraldeetako korrikalari gehiago. Nafarroako eta Gipuzkoako harremanak sendotzeko baliagarria izan da, bezperan Andoainen Plazaolako lehen artisautza azoka antolatuta baitzen.



Maratoi erdiko podiuma, gizonekoena eta emakumezkoena batera. AIURRI



Andoaingo eta eskualdeko partaidetza handia izan zen. Argazki ugari dago ikusgai www.aiurri.eus webgunean. AIURRI

Bi probatako sailkapenak

ITURRIA: ANTOLATZAILERAK

42 KM | Mutilak:

- Iban Iriarte 2:50:05
- Ivan Piñon 2:51:04
- Sergio Uzkudun 2:52:42

42 KM | Neskak:

- Eva Esnaola 3:15:08
- Angela Gonzalez 3:43:30
- Merche Casas 3:49:50

26 KM | Mutilak:

- Andrew Mcleod 1:24:44
- David Palomo 1:30:22
- Jose España 1:32:47

26 KM | Neskak:

- Oihana Ortiz 1:46:05
- Begoña Julian 1:51:03
- Lide Azkue 1:57:21



Buruntzaldea igeriketa taldean matrikulazioa zabalik. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea igeriketa taldean izen-ematea zabalik

IGERIKETA Izen-ematea webgunearen bitartez egin behar da, bertan topa daiteke informazio guztia

Erredakzioa ESKUALDEA

Urrian hasiko den ikasturtean igeriketan trebatu nahi duenak badu aukera Buruntzaldea igeriketa taldean. Eskola igeriketan eta igeriketa federatutan eman daiteke izena Andoainen nahiz Lasarte-Orian, beti ere 2010ean edo aurretik jaiotako haur eta gaztetxoentzat.

Izen-ematea

Interesa duenak buruntzaldea.eus webgunean izena eman behar du. Webgune horretan aurkituko du ordutegia, kuoten zenbatekoa eta taldeari lotutako albiste gehiago. Informazio gehiago: info@buruntzaldeaikt.eus. 696 506 632.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Urnieta-Euskalduna **0-1**

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:45 Euskalduna-Mariño / Lar, 22

17:30 Roteta-Urnieta / Lar, 22

SAILKAPENA

Baskonia 3 puntu

Euskalduna 3 puntu

Urnieta 0 puntu

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Ostadar **0-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30 Vasconia-Euskalduna / Lar, 22

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Zumaiako **2-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Billabona-Euskalduna / Lar, 22

JUBENIL MAILA

EMAITZA

Urnieta-Euskalduna **4-1**

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:30 Euskalduna-Ostadar / Lar, 22

16:00 Lazkao B-Urnieta / Lar, 22

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Real Union-Euskalduna **1-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Euskalduna-Kostkas / Lar, 22

KADETE MAILA

7. MULTZOA. EMAITZA

Urnieta A-Ostadar A **3-1**

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00 Zarautz C-Urnieta A / Lar, 22

8. MULTZOA. EMAITZA

Antigua Luberrri B-Urnieta B **0-5**

ASTEBURUKO PARTIDA

12:00 Urnieta B-Sanse A / Lar, 22

10. MULTZOA. EMAITZA

Euskalduna-Idiazabal B **2-0**

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00 Intxurre-Euskalduna / Lar, 22

KADETE NESKAK

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Urnieta-Euskalduna / Ig, 23



AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO
URNIETA

Mantaleko txokotik

Hogei urte atzera ez zegoen sakelakorik. Internet ere 2005 urte aldera iritsi zen gurera *tsunami* baten pare. Orduan pentsaezina zen webgune propioa eduki eta norberak bere gauzak kontatzea. Gaur egun ez. 20 bat urte daramatzat hara eta hona bidaiatzen, eta oroitzenetatik tira egiten ahaleginduko naiz noizbehinka, non eta nola ibili naizen zabaltzeko. 20 urte atzera, garai hauetan, Peru aldean ote nenbilen, bizikleta batean gorriak ikusten altiplanoan...

Berandu nabilela sentitzen baitut. Baina etorri da eguna. Nire bidaiak nonbait jarri, erakutsi eta gordetzeko garaia da.

Argazki eta bideoak gordetzearen kontuan desastre bat bainaiz. Ikusgai duzue, dagoeneko, www.mantalekotxokotik.eus web gunea. Bidaiak ardatz izanen dituen web gune xumea. Hiru post edo testu idatzi ditut. Gehiago joango dira. Nireak, eta zuenak, espero. Nik erakustez bat ikasi ere egin nahi dudalako besteen esperientziekin.

Paris, Erroma, edota Conilera joan bazara, adeitsu esango dizut web gune honek bestelako bidaiak dituela ardatz. Rotorua, Hokkaido, Jasper edo Lofoten uharteetara bazoaz, ongi etorri beroa egingo dizut.

Alain Motos-ek egin ditu ikusten ez diren lanak. Nik oroitzenen kutxa astindu baino ez, eta teklatura zanpatu. Bera gabe webgunea ez zen jaioko. Nepalen sortu zitzaidan grina, eta orduz geroztik bueltak ematen. Sarean ikusten ditudan argazki eta kontu bitxiak ere iritziak emango ditut. Eta galderak egin nahi badituzue, egin. Erantzungo dizuet.

Beste amets bat. Igual, 10-15 urte barru, afizio hau ofizio bilakatuko da...

Egin hegan!

AZKENA

Iñaki Alkainen ibilerak 36ko Gerran, bertsoetan

Sanmielen bezperatan, irailaren 25ean, Iñaki Alkain urnietarrak eta Antonio Zavalak idatzitako 'Gerrateko ibilerak' kontakizun liburua aurkeztuko dute Urnietako Lekaio areto nagusian, arratsaldeko 19:00tan hasita

Erredakzioa URNIETA

Berrargitalpen honen zain egon da hainbat jende aspaldidanik, agortua baitzen 1980. urtean Auspoa sailak hiru liburukitan argitara emandako obra hau, aditu askorentzat Gerra zibilean Euskadin izandako gertakari buruz dagoen lekukotasunik interesgarrienetakoa. Beraz, datorren asteartean aukera izango dute urnietarrek eta hurbiltzen diren bisitariak Lekaio Kultur Etxeko aurkezpenean eskuratzeko, Gerra zibila gurean ulertzeko ezinbesteko gertatzen den liburua.

Iñaki Alkainek 1970. urtean hasita azaldu zizkion gerra garaiko bere bizipenak Antonio Zavalari, eta urtebete pasatxo elkarrekin bizipen horiek guztiak idatzi zituzten; Iñaki Alkainek gudari eta espia bezala Agirre lehendakariaren agindupean bizitutakoak gerra fronte osoan barrena eta baita etsaiaren lerro artean, 1936-1939 urte bitartean. Iñaki Alkain ez zen, baina, eginkizun horietan bakarrik ibili; Andoingo Merdilladi baserriko Joxinixio Etxeberria izan zuen gorabehera eta abentura horietan guztietan lagun; oso izaera eta aiurri ezberdineko bi gizon baina bi adiskide handi. Izan ere, andoaindarrak heriotzak Bilboko Artxanda mendiko borroketan jo zuen, Molaren tropa matxinatuetako soldadu batek baionetaz hil zuenean. Kontakizun horiek guztiak idazteko lanak, ordea, Aita Zavalak bakarrik amaitu behar izan zituen, Iñaki Alkain ezustean hil baitzen 1971. urteko azaroaren 12an, 54 urte besterik ez zuela.

Bere hiru liburuxoen arrakasta berehalakoa izan zen; bai gaiak, bai kontaearen ulergarritasunak eta hurbiltasunak Alkain eta Zavalaren obra etxe askotara eraman zuten; Urnietan



Iñaki Alkain urnietarra. AIURRI

bertan eskutik eskura ibili ziren liburu horiek urteetan eta zer esan ugari sortu zuten, ez baitira gutxi obra horretan azaltzen diren urnietarrak...

Datorren asteartean, irailaren 25ean, bigarren aurkeztuko da, bada, Gerrateko ibilerak. Oraingo edizioak, baina, badu ezberdintasunik: hiru liburukiak bakar batean bildu dituzte edizioaz arduratu diren Xabier Andonegik eta Pello Esnalek eta, gainera, euskara batura ekarri dute Iñaki Alkainen kontakizuna, baina bizitasun eta bertakotasun izpirik galdu gabe. Izan ere, Xabier Andonegi Iñaki Alkainen arreba baten biloba da. Argitalpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren eskutik osatzen ari den Hauspoa bilduma berriaren hirugarren zenbakia da.

Edizio berriaren aurkezpenean Luis Gardek idatzi du, azpimarratuz "ahozkotasuna dela narrazio honetako balio handietakoa eta gaurko idazleentzat

eredugarria dela ahozko erregistrotik hurbil dabilen kontaera hau". Begoña Durrutyrenak dira, berriz, idazlanean banaturiko marrazkiak.

Hitzaldia eta bertsoak Lekaioko aurkezpen ekitaldian

Aurkezpene Hauspoa taldeko Pello Esnal eta Joxemari Iriondok egingo dute, Xabier Ando-

Urnietarrak Alkainen liburuan

'Gerrateko ibilerak' liburuan azaltzen diren urnietarren zerrenda honakoa da:

- Jose Joakin Albizu, Goibidieta baserrikoa.
- Sebastian Garagorri, 'Handia', Karrika etxekoa.
- Antonio Mujika, Belauntzaran baserrikoa.
- Jose Lizeaga, errementaria.
- Rafael Barkaiztegi, harakina.
- Roke Lasarte.
- Migel Isasa.
- Tomas Zumalakarregi.
- Jesus Otaegi.
- Jose Berakoetxea.
- Juanito Elustondo.
- Martin Irizar.
- Kaxiano Ezeiza.
- Ramon Miner.

negirekin batera, eta bertan bertsozaleek ere parte hartuko dute: Andoni Mujika 'Anatz' urnietarrak eta Ion Beloki andoaindarrak, launa bertso kantatuko baitute, Iñaki Alkainek eta Amezketa artzain batek ibilera haietan, 1936ko Gerrako frontean, ondurikoak.

Aurkezpen ekitaldia amaitu ondoren, Lekaioa bertaraten direnek liburuaren argitalpen berriua eskuratu ahal izango dute. Bertsozaleek datorren asteartean, beraz, hitzordua dute Urnietan.